


OCW

IKASTEKO MATERIALA: 3.GAIA

FAMILIA-ORIENTAZIOA



designed by freepik.com

3.gaia. Familia-aniztasunaren terminologia

- 3.1. Familia-aniztasunaren terminologia
- 3.2. Erreferentzia bibliografikoak

IKASKETA-EMAITZA HAU IZANGO DA:

Familia-aniztasunean erabiltzen den terminologia ezagutuko da

3.gaila. Familia-aniztasunaren terminologia

3.1.Familia-aniztasunaren terminologia

Jarraian, familia-orientazioan erabiltzen den terminologia errepatatuko dugu. Hainbat familia mota dago eta familia jakin batek familia-estrukturaren arabera aniztasuna izan dezake. Aniztasun hori bizitza zikloan zehar gertatzen diren aldaketekin lotzen badugu, are gehiago zabalitzen da aukera-sorta [1]. Aniztasuna familiak bizi duen problematikaren edo zailtasunaren arabera sailkatzen badugu (adibidez drogak...) orduan eta zabalagoa da sorta. Honela, jarraian, estrukturaren aldetik familietan dagoen aniztasuna ikusiko da, [1] eta [2] artikuluetan oinarrituta. Familia hedatu edo konplexuak, familia nuklear funtzionala eta sinplea, gurasobakarreko familiak, izatezko bikoteak, seme-alabarik gabeko guneak, familia berreraikiak, adopzio-familiak, harrera-familiak eta familia homoparentalak ikusiko dira. Hurrengo gaitan, estruktura hauek, bizitza-zikloko aldaketak eta/edo problematikak kontuan hartuta zenbait gida eskainiko dira.

Familia hedatu edo konplexuak (gaztelera *extensa*, *extensa amplia* edo *compuesta*): Familiaren barnean gune bat baino gehiago bereizten dira. Bikote bat edo bikoteko pertsona bat seme edo alaba batekin eta beste ahaide batzuekin eta ahaideak ez direnekin bizi da. Hiru belaunaldi edo gehiago egon daitezke.

Familia nuklear funtzionala: Gurasoek eta seme-alabek osatzen dute, biologikoak edota adoptatuak izan. Urte askotan eredu tradizionala izan da, baina bai kopurua, bai ezaugarriak ere aldatzen ari dira. Lehenago, familia tradizionalan, bikoteak ezkondua egon behar zuen, lotura iraunkor bihurtuz. Seme-alabak biologikoak ziren. Rolei dagokienez, aitak etxetik kanpo lan egiten zuen dirua lortzeko; amak, berriz, seme-alaben eta etxearen ardurak hartzen zituen. Gaur egungo familia nuklearretan gurasoak askotan ez daude ezkondua eta seme-alabak modu ezberdinetatik iristen dira (biologikoak, adoptatuak, aurreko harreman batekoak, eta abar). Rolak banaketa asko aldatu da.

Familia nuklear sinplea: Familia nuklear funtzionalaren berdina baina haurrik gabe.

Gurasobakarreko familiak (gaztelera *monoparentales*, *monomarentales* dira): Guraso batek eta bere seme-alabek osatzen dute familia mota hau. Familia hauek betidanik izan dira: alarguntasunaren ondorioz, seme-alabak ezkontzatik kanpo izanik, bereizketen ondorioz, eta abar.

Izatezko bikoteak (gaztelera *parejas de hecho*): Azken urteotan ugaltu egin dira, eta horrekin batera balorazio sozial eta juridikoa irabazi dute. Begiratu ezazu Eusko Jaurlaritzaren webgune honetan zein den errejistroaren araudia, Euskal Autonomia Erkidegoko izatezko bikoteak arautzen dituen 155/2017 DEKRETUA, maiatzaren 16koa [3].

Pertsona bakarreko guneak (gaztelera *hogares unipersonales*): Atal honetan pertsona dibortziatuak, berezituak, ezkongabeak eta alargunak sartzen dira.

Familia berreraikiak (gazteleraz *familias reconstituidas*): Ezkonduak edo ezkongabeko bikoteak osatzen dituzte. Bikotekide batek, gutxienez, seme-alabaren bat izan zuen aldez aurretiko beste harremanen batean. Familia mota honetako partaideak hauexek dira: aita, ama, anaiordeak, arrebaordeak edota anai-arrebak. Bikotearen heriotzaren, banaketaren edo separazioaren ondoren gertatzen da oro har.

Adopzio-familiak (gazteleraz *familias con hijos adoptivos*): Familia hauetan ere aniztasuna bide ezberdinetatik dator: alde batetik adoptatzaile eta adoptatuen ezaugarriak daude; bestetik, parte-hartzaileek dituzten motibazioak, horien guztien artean sortzen diren harremanak ahaztu gabe. Haurrak ekartzeko nahia handia izaten da eta tramite administratibo asko gainditu ondoren eta, sarritan, urte askotan zehar ugalketa tratamenduak pasa eta gero. Egokitasun egiaztagiria lortu behar izaten da. Nazioarteko adopzioari buruz gehiago jakiteko kontsultatu ezazu nazioarteko legedia (jarraitu esteka: <http://www.euskadi.eus/nazioarteko-adopzioa-araudia/web01-a2famil/eu/>)

Harrera-familiak (gazteleraz *familias de acogida*): Familia hauek umeak bere gunean babesten dituzte, behin-behinekoz edo era iraunkorrean. Bitartean, Gizarte Zerbitzuek guraso biologikoek haien arazoak konpontzeko lanean aritzen dira. Modu horretan, tratu txarrak izan dituzten umeak edo une puntualetan laguntza behar dutenak eta/edo abandonatuak izan direnak, familia orekatu batean bizi daitezke, instituzionalizazioa eta adopzioa planteatu gabe. Egoeraren arabera, Espainiako legediak hainbat aukera eskaintzen ditu: harrera aurre-adoptiboak, familia zabalaren barnean (aitona-amonak, osaba-izebak, eta abar) edo beste batzuetan denborarekin guraso biologikoekin itzultzeko aurrikuspena egoten da.

Familia homoparentalak (gazteleraz *familias homoparentales, comaternales*): Sexu bereko pertsonen osatua dagoen familia.

Familia-aniztasunari buruz gehiago jakiteko, zentro birtualak bixitatu ditzakezu. Hona hemen bi adibide (ikus 1. Taula)

1.Taula. Familia-aniztasunari buruzko webguneak

WEBGUNEA	ESKURAGARRI NON?	ZER EGITEN DUTE
Eusko Jaurlaritzaren LGTBI Dokumentazioa Zentrua birtuala	<p>http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/aa38aLGTBWar/exposiciones/exposicionesVisor/10</p> <p>Baliabide materialak atal honetan daude: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/aa38aLGTBWar/recursos/listadoRecursos</p>	<p>Eusko Jaurlaritzak eta alor horretan lan egiten duten bost elkartek eratu duten zentru birtuala da, zehazki, EHGAM, Aldarte, Errespetuz, Gehitu eta Guztiok elkarteak. Euren artxiboak edonoren eskura ipini dituzte dokumentazio-zentro birtual honetan.</p>
<p>Familias en positivo webgunea</p> <p>(Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar Social y la Federación Española de Municipios y Provincias)</p>	<p>http://familiasenpositivo.org/eu</p>	<p>Plataforma honen helburua da, gurasotasun positiboa bultzatzea eta tokiko zerbitzu publikoei eta elkartei errefortzuak ematea gurasotasun positiboaren babesean</p>
<p>Eguía-Careaga Fundazioa</p>	<p>https://www.siiis.net/usuarios/mochila.php?url=/Search/Results?lookfor=descriptor_facet%3A%22LGBT%22+AND++descriptor_facet%3A%22Familia%22&type=AllFields&sort=year&lng=es&ui=siiis&filter%255B%255D=database_facet%253A%2522Documental%2522&filter%255b%255d=quitar_facet%253A%2522database_facet%2522</p>	<p>Dokumentazio-zentro honetan gaurkotasan handiko argitarapenak aurkituko dituzu, familia aniztasunaz gain, beste hainbat gizarte gaietan</p>

Atal honekin bukatzeko, baditugu nazioartean terminologia elebidunak edo eleanitzak eta glosarioak, haurren babesaren, eskubideen, ongizatearen eta behar berezien inguruan. Hemen dituzu aukeratutako batzuk (Ikus 2. Taula).

2.Taula. Glosategiak eta hitz-zerrendak

ERAKUNDEA	ESKURAGARRI NON?	EZAUGARRIAK
Save the children (2007)	https://resourcecentre.savethechildren.net/sites/default/files/documents/5608.pdf	Ingelesezko glosategia Haurren babesaren inguruan
Child Welfare Information Gateway(2008)	https://www.oas.org/dil/family_law_glossary_of_terms.pdf	Gaztelarazko-ingelesezko-hitz-zerrenda elebiduna Haurren ongizatearen inguruan
Child Welfare Information Gateway(2008)	https://www.childwelfare.gov/glossary/glossarya/	Ingelesezko glosategia
Beharrizan bereziak dituzten haurren arreta integraturako prozesuko lantaldea (2013)	https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_publicaciones/eu_argital/adjuntos/PAINN E2013eu.pdf	125-127 orrietan euskarazko glosategi bat dago Osasuneko behar bereziak dituzten haurren inguruan
National Center for Children in Poverty (2019)	https://www.researchconnections.org/childcare/childcare-glossary	Ingelesezko glosategia umearen zaintzaren eta hezkuntza goiztiarraren inguruan

3.2. Erreferentzia bibliografikoak

[1]AGUADO, L. Familia ereduak gaurko eskolan [online]. Tantak, 2010, 22(1).

[Kontsulta: 2019-5-15] Eskuratuta:

<http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Tantak/article/view/2201/0>

[2] MARTINEZ-MONTEAGUDO, M.C., ESTÉVEZ, E & INGLÉS, C. Diversidad familiar y ajuste psicosocial en la sociedad actual [online]. Psicología.com, 2013, 17 (6).

[Kontsulta: 2019-5-15] Eskuratuta:

<https://www.uv.es/lisis/estevez/art13/psicologia-com-art13.pdf>

[3] 155/2017 DEKRETUA, maiatzaren 16koa [Kontsulta: 2019-5-15] Eskuratuta:

<http://www.euskadi.eus/izatezko-bikoteei-buruzko-erregistroaren-araudia/web01-a2famil/eu/>